



Sumario

Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea

Material erabilgarriak Gardentasunean aurrera egiteko

Gaur egungo gaiak

Esperientziak

Ekitaldiak

Hurrengo hitzorduak

Prestakuntza

- Kideak eta sartu berriak

- "Gardentasuneranzko Bide Orria: udal gardenagoa eraikitzeke estrategia eta tresnak" **2. orrialdea**.
- "70 praktika on udal gardenen lortzeko" **3. orrialdea**
- "Udal gardentasuna abian jartzeko eta kudeatzeko gida" **3. orrialdea**

- Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko Legearen onarpena **4. orrialdea**
- Ustelkeriari buruzko kezka gero eta handiagoa (CISeko barometroa 2013ko azaroa) **4. orrialdea**
- Gardentasunari eta Gipuzkoan informazio publikoa eskuratzeari buruzko foru arauaren aurreproiektua **5. orrialdea**

- "Gardentasunaren Iparrorratza" Proiektua (Italia, 2013ko EPSA Saria) **5. orrialdea**
- Webgunearen bitartez Demokrazia hobetzea (ikerketak) **6. orrialdea**
- Erreferentziako webguneak **6. orrialdea**
- Parte hartzea sustatzeko aurrekontuak **7. orrialdea**

- Demokraziaren Munduko Foroa (2013ko Europako Kontseilua) **7. orrialdea**
- Gardentasunaren Legeari buruzko Jardunaldia (EUDEL, 2013ko abenduak 10) **8. orrialdea**
- Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea Eusko Legebiltzarrean **9. orrialdea**

- Biltzar, Jardunaldi eta Hitzaldien 2014ko agenda **9. orrialdea**

- Gardentasun eta parte-hartzeari buruzko ikastaro eta tailerrak (EUDEL-IVAP/HAEE-Foru Aldundien 2014ko Zeharkako Plana) **10. orrialdea**

Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea

Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea 2013ko urtarrilean sortu zen eta oraindik jarraitzen du udalei esperientzia, estrategia, metodologia, tresna eta materialak elkarri trukatzeko espazioa eskaintzen, Gardentasuna gure udaletako gobernu eta administrazioetan hobetzeko xedez.

2013ko azken hilabeteetan beste udal bi (Zamudio eta Alonsotegi) atxiki zaizkio elkarlanerako topagune honi. Gaur egun, Sare honetan, Txorierriko Mankomunitatea eta hiru lurralde historikoetako nahiz herritar-kopuru desberdinetako 25 udal daude.

ARABA: Amurrio, Guardia, Vitoria-Gasteiz

BIZKAIA: Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Derio, Elorrio, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Gueñes, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Ugao-Miraballes, Zamudio
Txorierriko Mankomunitatea


GIPUZKOA: Eibar, Elgoibar, Hondarribia, Irun

- 50.000 biztanle baino gehiago
- 10.000-50.000 biztanle
- 10.000 biztanle baino gutxiago

Gardentasunean aurrera egiteko material erabilgarriak

Sareko udalek 2013an egindako lan bateratuaren ondorioz, laguntzarako gidaliburu bi prestatu dira: ***Gardentasuneranzko Bide Orria: udal gardenagoa eraikitzeke estrategia eta tresnak (gidaliburua) eta *70 praktika on udal gardena lortzeko (katalogoa).**

Gidaliburu biek udal arloko gardentasuna hobetzeko hasierako orientabiderako eta jarraitu beharreko oinarritzko urratsak eskaintzen dituzte, bai antolakuntzari, bai barneko prozedurei hala nola herritarrekiko komunikazio eta harremanari dagokienez.



Gida, material erabilgarriekin:

- herritarrentzako galdetegia,
- autoebaluazioa,
- lehentasunezko adierazleak,
- erraz ulertu daitekeen informazio ekonomiko-finantzarioa aurkezteko gomendioak, etab.

[Gardentasuneranzko Ibilbide Orria](#)



Udal esperientzien **katalogoa**. Gardentasunaren alorrean hasten ari diren edo bide laburragoa egin duten udalentsako erreferentzia-ereduen bilduma.

[70 Praktika On](#)

Udal gardentasuna praktikan jartzea eta kudeatzea

Estrategia zehaztuta, udal askok informazioa eta aholkularitza eskatu dituzte Gardentasuna praktikan jartzeko **jarduera zehatzei** dagokienez eta gardentasunaren aldeko ibilbide iraunkorra edukitzeko **jarraitu beharreko urratsei buruz**.

Hori dela eta, 2014an Sarea **"Udal gardentasuna abian jartzeko eta kudeatzeko gida"** prestatzeko lan egiten ari da, arlo horretan, etengabeko aurrerapen eta hobekuntzan udalak laguntzeko.



Gaur egungo gaiak

GARDENTASUNARI, INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEARI ETA GOBERNU ONARI BURUZKO LEGEAREN ONARPENA

2013ko azaroaren 28an, ostegunean, Diputatuen Kongresuan *Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko Legea* onartu zen. Hona hemen bere helburuak: "Administrazioaren gardentasuna handitzea eta gobernarien erantzukizuna sendotzea, pertsona guztiek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidearen eta herri-erakundeek informazioa modu proaktiboan emateko duten obligazioaren bitartez."

Estatu osorako araudi berri honetan, herri-erakundeentzako hainbat printzipio etiko orokorrez eta zenbait obligazio zehatz ezarri dira, herritarrei haien jardueraz eta, zehatz-mehatz, diru publikoaren norakoari buruzko informazioa eskaini ahal izateko.

Legea hiru idazpurutan banatzen da: **I. Titulua - Herri Jardueraren Gardentasuna; II. Titulua - Gobernu Ona eta III. Titulua - Gardentasun eta Gobernu Onari buruzko Kontseilua.**

Gobernu Onaren Kodeari dagokion zatia dagoeneko hasi da indarrean BOEn Legea argitaratuta (2013-12-10). Hala ere, Gardentasun eta Informazioari buruzko zatiak urtebeteko atzerapena edukiko du Estatuaren Administrazio Orokorrari eta erakunde pribatuei dagokienez. **Autonomia-erkidegoek eta udalek urte biko epea edukiko dute Legea ezartzen hasteko**, hau da, **2015eko abendura arte**. Horrekin, arlo honi buruzko berezko legeria onartu nahi duten autonomia-erkidegoei hala egiteko behar besteko denbora eskaini nahi zaie.

Gardentasunaren Legeari buruzko informazioa:

[Gardentasunari buruzko Legea](#)

[Lege honen artikuluen inplikazioei buruzko udalentsako Txosten Praktikoa](#)

Legeari buruz Nazioarteko Gardentasuna erakundeak egindako [*Adierazpena](#)

*Iritzi-artikulua ("[Gardentasuna: Tximist handia eta euri gutxi](#)") *Rafael Jimenez Asensio*. Zuzenbide Konstituzionaleko Irakaslea eta aholkulari instituzionala)

USTELKERIAK SORTUTAKO KEZKA GERO ETA HANDIAGOA DA

CISen (Ikerketa Soziologikoen Zentroaren) **azken "Barometroa"** 2013ko azaroan argitaratu zen. Horretan ageri denez, ustelkeriak arazo ekonomikoek baino gehiago kezkatzen ditu herritarrak: inkestatuen %77,7k langabezia arazo nagusizat jotzen du. Bien bitartean, ustelkeria rankingeko bigarren postuan geratzen da (inkestatuen %31,8) hirugarren postuan dauden arazo ekonomikoak gaindituta (inkestatuen %31,1).

Egoera politikoari buruzko barne-balorazioa (%32,7 txarra eta %48,5 oso txarra) eta klase politikoari buruzkoa txarra da, alderdi politikoak zerrendaren laugarren lekuan kokatzen dituzten datuetatik ondorioztatu daitekeenez, izan ere, urrian inkestatuen %28,6 ziren eta azaroan, berriz, %29,7.

Gainera, **Nazioarteko Gardentasuna erakundeak abenduan argitaratutako "Ustelkeriaren Pertzepzioari buruzko 2013ko Indizean"** Espainiako Erresuma da ustelkeriari buruzko pertzepzioa gehien handitu den munduko bigarren herrialdea.

Informazio gehiago:

[Ustelkeriari buruzko Munduko 2013ko Indizea](#), Nazioarteko Gardentasuna

[CISen barometroa](#) (2013ko azaroa)

GARDENTASUNARI ETA GIPUZKOAN INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEARI BURUZKO FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUA

Gipuzkoako Foru Aldundiak **gardentasunari eta Gipuzkoan informazio publikoa eskuratzeari buruzko foru arauaren proiektua** prestatu du. Gaur egun, Gipuzkoako Batzar Nagusietan aztertzen ari dira.

Foru arau honek Aldundia ez ezik, foru-erakunde autonomoak, enpresa publiko foralak, merkataritzako sozietate foralak, fundazioak eta Batzar Nagusiak ere ukitzen ditu. Gardentasunaren foru-arauaren printzipio orokorra ahalik eta irekiena izatea da; hau da, arauaren muina gardentasun eta informazioa eskuratzea izan behar da; salbuespena ordea, eskuratzeari uko egitea edo eskubide hori mugatzea. Urtebeteko epean Gardentasunaren Ataria abian jarriko da, arauan adierazitako informazioa edukita. Bertan eskuratu ahal izango da informazio publiko guztia, argi eta garbi azalduta eta formatu irekian, erabilera pribatuko dokumentuak lortzeko aukera barne.

Esperientziak**"GARDENTASUNAREN IPARRORRATZA" PROIEKTUA, Italiako Gobernua**

"**Gardentasunaren Iparrorratza**" izeneko proiektua Italiako Gobernuaren Herri Administrazio Sailak aurkeztu zuen. [2013ko EPSA Sarien](#) irabazle suertatu zen (Herri Administrazioaren Europar Institutuak emandakoak), "Europako eta Estatuko Administrazioa" izeneko kategorian.

Proiektu honen bitartez, **herri-administrazioen webguneen jarraipenak** ustelkeriaren kontra borrokatzen eta gardentasun handiagoa edukitzen nola lagundu dezakeen erakusten da, herritarrei herri-erakundeek lege-arloko obligazioak nola betetzen dituzten egiaztatzeko aukera ematen dien bitartean. Horretarako, herritarrei modu aktiboan egiaztapenak egiteko eta online haien iritzia emateko aukera eskaintzen zaie; horrela, herri-administrazioaren gaineko kontrola gauzatu dezakete. Ondorioz, herri-administrazioaren jarduera etengabe hobetzen da.

**Proiektuari buruzko informazio gehiago:**

[Gardentasunaren Iparrorratza](#)

WEBGUNEAREN BITARTEZ DEMOKRAZIA HOBETZEA

Azaroan Estrasburgon burututako Demokraziarako Munduko Foroan (Europako Kontseilua) Oxfordeko Unibertsitateko Amanda Clarke anderearen [“Webgunea tresna demokratiko gisa ustiatuta: demokrazia digitala ikertzeko eta praktikan jartzeko era berriak”](#) izenburudun ikerketa aurkeztu zen. Horretan, demokrazia hobetzeko webguneak erabiltzeko aukera aipatzen da.

ERREFERENTZIAZKO WEBGUNEAK



www.novagob.org

Herri Administrazioaren Gizarte Sarea. Novagob, gaztelaniaz hitz egiten duten (Espainia eta Latinoamerikako) lider publikoei eta sektore pribatuaren nahiz arlo akademikoaren profesionalei zuzenduta dago. Hona hemen eztabaidagaietarikoz batzuk: kalitatea eta berrikuntza, giza-baliabideak eta prestakuntza, teknologia, eGob eta gizarte-sareak, kudeaketa ekonomikoa, lege-arloa edo udal zein tokiko kudeaketa. Dagoeneko sortutako harreman-taldeetan hurrengo gaiak jorratzen dira: open-data, osasun unibertsala, erosketa publiko arduratsua, Herri Administrazioaren erreforma,

Legebiltzar Irekia edo hiri adimendunak (Smart cities).

www.idea.int

International Institute for Democracy and Electoral Assistance izeneko webgunean, hainbat gairi buruzko datuak, estekak, gaur egungo gaiak jorratzen dituzten berriak eta **azterketa konparatiboak** daude, esate baterako, hauteskunde-prozesuak, parte-hartze politikoa, gardentasuna, demokrazia eta garapena edo politika publikoak.

www.iknowpolitics.org

International Knowledge Network of Women in Politics (iKnow) emakumeak politikan duen eginbeharrari buruzko eztabaida eta ezagutza sustatzeko xedea duen online espazioa da. Datu guztiak iragazi daitezke gaiaren, erregioaren edo baliabide-motaren arabera. Gainera, erregistratutako erabiltzaileen artean elkar komunikatzeko aukera ematen du.

www.sunlightfoundation.com

Sunlight Foundation erakunde independentearen xedea Interneten ahalmenaz baliatzea da, horrela gardentasun handiagoa eta gobernu irekiagoak lortu ahal izateko. Webguneako tresnak, aplikazioak, txostenak, berri interesgarriak eta eguneratu daitekeen open datari buruzko gida eskaintzen ditu.

www.asktheeu.org

Ask the EU informazio-eskaerak eta kontsultak Europako Batasuneko erakunde eta instituzioetara bideratzeko diseinatutako webgunea da. Gardentasuna nahiz herri-erakundeen eta herritarren arteko elkarrengaitza sustatzen ditu.

www.maspoderlocal.es

Más Poder Local Ortega-Marañón Fundazioaren komunikazio politiko eta instituzionaleko sailaren argitalpen digitala da. Hilabetekari honek gai jakin bat hartzen du ardatz eta artikulua, elkarriketak eta politikari lotutako datu interesgarriak biltzen ditu.

PARTE HARTZEA SUSTATZEKO 2014ko AURREKONTUAK



Euskadiko gero eta udal gehiago agertzen ari da udal aurrekontuetan herritarrek parte-hartzearen alde. Hala, herritarren ekarpenak sartu nahi dituzte inbertsioari buruzko jardura zehatzen definizioan. Gainera, herritarren iritziak oso lagungarriak dira udalen benetako beharrezan buruzko lehentasunak ezartzeko.

Oro har, parte-hartzea errazteko erabilitako bidea etxeetara **galdetegiak igortzea** da. Horiek betetakoan, udaletan zein beren beregi jarritako postontzi fisikoetan utzi daitezke edo postaz bidali.

Gainera, erabilitako beste tresnetariko bat da **udal webgunean** bertan galdetegia argitaratzea. Hala, herritarrek dokumentua jaitsi dezakete edo posta elektronikoz igorri edo, aukeran, online bete. Aurrekoak herritarren parte-hartzea bideratzeko tresna erabilienak badira ere, udal batzuk herritarrekiko aurrez aurreko elkarreragin zuzenagoa sustatzen ari dira. Esate baterako, zenbait egunetan **leku fisikoak prestatzen dira** herritarrei gobernu-taldearekin elkarrizketatzeko aukera emateko, aurrekontuei buruzko ekarpenak eta iritziak bertatik bertara helarazteko.

Ekitaldiak

DEMOKRAZIARAKO 2013ko MUNDUKO FOROA. Estrasburgo / Europako Kontseilua



2013ko azaroaren 23tik 29ra Estrasburgon burutu zen **Demokraziarako 2013rako Munduko Foroaren II.** Edizioa, Europako Kontseiluak antolatuta. Foru honetan,

IKTak prozesu demokratikoetan sartzea eta Interneten eta gizarte-sareen bidez praktika demokratikoan izandako iraultzari buruzko gogoeta izan zituzten hizpide. [Abdou Diouf](#) [fr] Frankofoniaren Idazkari Nagusia eta [Amine Maalouf](#) [en] idazlea bertan zeudela inauguratu zen. Gai nagusian («**Demokrazia birjostea: herri-erakundeak herritarrekin konektatzea aro digitalean**») eta antolakuntzan bereziki teknikoak izan zen, izan ere, lau gai-arlo egon ziren, «Laborategietan» banatuta. Horretarako, adituen aurkezpenak bilatu eta aukeratu ziren.

Azken urteotan, internet berrikuntza demokratikoaren espazio estimulatzaile bilakatu da. Egunez egun, parlamentuek, gobernuak eta udal agintariek webgune berriak sortzen dituzte. Haien bidez, herritarrek zuzenean lagundu dezakete denbora errealeko erabakiak hartzeko prozesuetan eta, horrela, haien ordezkariak hartutako erabakietan eragina eduki dezakete. Horrek "politikaren krisia" deiturikoari emandako erantzuna da. Krisi hori, herritarrek alderdi politikokoekiko eta ordezkariakiko herri-erakundeekiko atxikimendurik ezan ikusi daiteke.

Foroaren tailerren artean, hurrengoak izan ziren nabarmenenak: e-partehartzea, gobernu irekia eta gardentasuna. **Esate baterako:**

- Kyopol – Hiri Sinbiotikoa Elkarreak (<http://www.kyopol.net>) Tokiko Demokrazia Digitalari buruzko tailerlean parte hartu zuen, CitYsens (<http://citysens.net>) **Tokiko Herritar Networkingeko eta Crowdfundingeko Plataforma sortzeko proiektua aurkezteko.**
- **Alternatibak ordezkartzaren bidezko demokraziari?** 1. laborategia: [Demokrazia likidoa](#) [fr], Alemaniako Pirata Alderdia; 3. laborategia: [Eztabaida publikoa sustatzea eta etorkizunaren ikuspegi partekatua eraikitzea](#) [fr].
- **Demokrazia 2.0**, 9. laborategia: [Alerta, hauteskundeak](#) [fr]
- **Etorkizunean pentsatzea**; 17. laborategia: [filmak sortzea, gizartea sortzea](#) [fr], batik bat, Tunisie 4.0 Nesselfen proiektuaren bidez; eta 18. laborategia, [«Konpontzeko kazetaritza» martxan](#) [fr], bertan izango dira, besteak beste, Bangla Desheko Shahidul Alam blogaria eta Guillermo Fariñas kubatar disidentea.

Europako Kontseiluak saioen bideoak eta argazkiak ipini zituzten eta Gogglen taldeak osatu zituen eztabaidak jarraitzeko.

[Saioen eduki zehatzaren berri](#) eduki daiteke [fr] -besteak beste kanpo hitzaldi batzuk-Mediaparteko blogean.

GARDENTASUNAREN LEGEARI BURUZKO JARDUNALDIA



2013ko abenduaren 2an, EUDELek eta HAEE/IVAPek "Gardentasunaren Legearen" berri emateko jardunaldia antolatu zuten. Horren bidez, bere egitura, edukia eta irismena aztertu nahi zituzten. Emilio Guichot Sevillako Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko katedradunak nazioarteko, europar eta estatu mailako egoerak eta Gardentasunaren Legea egiteko prozesua azaldu zituen. Gainera, autonomiek eta udalek erabakitzeke duten marjina zein den aurreratu zuen.

Informazio gehiago:

[Emilio Guichoten hitzaldia](#)

[EUDELen berria](#)

EUSKADIKO UDALEN SAREA EUSKO LEGEBILTZARREAN GARDENTASUNAREN ALDE

Imanol Landa Getxoko Alkateak EUDEL-en ordezkari gisa "**Herri-erakundeen eta Administrazio Publikoen Gardentasuna eta Gobernu Irekia**" izenburupeko bileran parte hartu zuen Eusko Legebiltzarrean, Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sareko urtebeteko lanaren balantzea eta etorkizuneko eginbeharrak aurkezteko asmoz.

Legebiltzarreko taldeen eta Q-epearen (Bikaintasunaren aldeko Herri Erakundeen) aurrean, udal taldeen jardueran, barne-prozeduran zein -antolakuntzan eta, batik bat, herritarrekin harremanetan jartzeko erabilitako bideetan, gardentasuna eta Gobernu ona ezartzeko Euskadiko udalen konpromisoa eta borondatea aurkeztu zituen.

Informazio gehiago: [Sarearen aurkezpena \(pdf\)](#) [EUDEL-en berria](#)

2014ko hitzorduak

Jardunaldia "[Tecnologia, Big Data eta Iraunkortasuna: Smart City definitzeko proposamena](#)"

Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren Fundazioa, BBVA Berrikuntza Gunea **urtarrilak 21**

Alkateen Simposiuma: [Lidergo eraldatzailerantz](#), Viena **otsailak 10-12**

Ardatzak: Gobernu Ona, gardentasuna eta kontuen berri ematea. Europako praktika onak.

[Elkarrengarritasunari eta segurtasunari buruzko Estatuko IV. Biltzarra](#) Madril, **otsailak 19 eta 20**

Berrikuntza Kluba

Herri Administrazioen Bikaintasunari buruzko IV. Biltzarra Q-epea. **maiatzak 22-23**

Internet, Zuzenbidea eta Politika. X Biltzarra - Bartzelona **uztailak 3 eta 4**

"[Hamarkada bat eraldakuntzan](#)"

Komunikazio Politikoari buruzko Nazioarteko I: Topagunea (ACOP)- Bilbo, **uztailak 17-19**

"[Komunikazio politikoa eraldatzen ari den munduan](#)"

World Public Relations Forumen VIII. Biltzarra - Madril, **irailak 21-23**

"[Komunikazioa kontzientziatz eta ezagutzaz: norbere buruari buruzko pertzepzioa eta erantzukizuna](#)"

European Communicationen urteroko 5. Hitzaldia - Lisboa **azaroak 12-15**

Research and Education Association (ECREA)

"[Communication for Empowerment: Citizens, Markets, Innovations](#)"

Prestakuntza



2014ko ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA PLANA

EUDEL-HAEE/IVAP- FORU ALDUNDIAK

[Programa osoa](#)

Zuzeneko ikastaroak

- 1. Gardentasunari buruzko Tailerra: lege-betekizuna eta herritarrekin harremanetan jartzeko aukera.** Nola ekin eta hobetu udal gardentasunean.
Datak: martxoak 4, 5, 11 eta 12
Tokia: Bilbo HAEE/IVAP (Errekalde zumarkalea, 18)
- 2. Gobernu Irekiko estrategia gisa erabiltzeko Gizarte Sareei buruzko Ikastaroa**
Datak: maiatzak 7, 8 eta 9
- 3. TBA (AIL) Tailerra: udal baten Markaren Kudeaketa estrategikoa**
Datak: ekainak 4, 5 eta 6
Tokia: Donostia. HAEE/IVAP (Bartolome, 28)
- 4. TBA (AIL) Tailerra: kudeaketa-plana eta aurrekontu gardenak**
Datak: ekainak 12, 19 eta 26
- 5. Jendaurreko Atentzioari buruzko Ikastaroa.** Harremanetarako komunikazioaren garapena
Datak: 1. edizioa gaztelaniaz: urriak 1, 2 eta 3
2. edizioa euskaraz: urriak 1, 2 eta 3
Tokia: 1. edizioa: Bilbo HAEE/IVAP (Errekalde zumarkalea, 18)
2. edizioa: Donostia HAEE/IVAP (Bartolome, 28).

Online Ikastaroak

- **Administrazio elektronikoari buruzko oinarrizko ikastaroa**
- **Gobernu ona eta gardentasuna herri-administrazioan**
- **Datuen babesari buruzko oinarrizko kontzeptuak** (2. edizioa: gaztelaniaz eta euskaraz)
- **Datuen babesari buruzko oinarrizko ikastaroa** (2. edizioa: gaztelaniaz eta euskaraz)
- **Herritarrek udaletan atenditzeko zerbitzu osoak**
- **Herritarrekiko harremanetarako gakoak**
- **Adimen emozionala**
- **Udal zerbitzuen kudeaketaren hobekuntzarako estrategiak**
- **Liderra izatea ziurgabetasuneko garaietan**